



UZTARRIA GUKA



**MANTANGORRIEN
HEGALDIA HASTE ARDA**

ITXARO IRAETA

**ONDO PASATU
FESTAK!**

Azpeitia
Denontzat



BADATOR UDA!

Eskuratu GUKA produktuak



GUKA

Informazio guztia: www.uztarria.eus/denda/



Zenbat kafe, eta hamabost urte

AITOR BELOKI • XJ Auzolaneaneko kide ohia

Gogoan dut zenbat kafe hartzen genituen auzoko jaiak prestatzeko, zenbat eginbeharrekoen koaderno eta inbentario zirriboratu; gogoan dut zenbat iluntze igarotzen genituen negu betez hasi eta udaberria iritsi arte nolako jaiak nahi genituen irudikatzen - horregatik jarri genion *Iluntze* izena auzo lokal bihurtu genuen *Bodeguilla* zaharrari, iluntzez aritzen ginelako biharko auzoa argitu nahian-.

Zutabe hau idazteko eskatu didatenean hemerrotekara jo dut, eta hara! aurten 15 urte beteko dira jai batzorde berria osatu zenetik; 15 urte beste jai eredu bat eraikitze-ko lehen urratsak eman zirenetik. Kontatu izan digute 80. hamarkadaren aurreneko urteetan hasi zirela auzoko jaiak ospatzen, eta garaiko artxibo zaharrei hautsak kendu eta hor ditugu letra larriz *Fiestas de Sanjuandegi* iragartzen dituzten fosforito koloreko kartel higatuak, *gran partido de futbol* Eroski ondoko kanpan dioen afixa - 1984an *partido entre solteros y casados* -, *competición de pillar el cochinitillo* edota urte batzuk aurrerago berriro ere berreskuratu genuen *al final de la gaupasa sopa de ajo*.

«Nola aldatzen diren gauzak, kamarada! 15 urte hauetan aurreko belaunaldiak egindakoari pintzelada bat ematea beharrezkoa zelakoan geunden, eta horretan aritu gara bide oparo honetan zehar»

Nola aldatzen diren gauzak, kamarada! 15 urte hauetan aurreko belaunaldiak egindakoari pintzelada bat ematea beharrezkoa zelakoan geunden, eta horretan aritu gara bide oparo honetan zehar. Euskara erdigunean jarrita eraiki ditugu festak, euskaraz ez dakiten auzotarrak euskarara gerturatuz; ahalik eta herritar gehienengana iristeko jaiak antolatu ditugu; haur eta gaztetxoak jaien benetako protagonista bihurtu ditugu; bertako produktuen aldeko apustua egin dugu eta emakumeen presentzia jaien egitarauan bermatzeaz gain, gune seguruak sortu ditugu.

Baliabide gutxi, kafe asko eta ilusio bereziarekin aritu gara urte hauetan zehar elkar-lanean, auzokideekin, herriko eragileekin eta nola ez, lan handia egiten duten beste auzoekin ere harremanak josten. Jose Luis Otamendik poemetako batean dioen gisan, *eskerrak badiren elementuak elkarrengana gerturatzen gaituztenak, dela jatorrizko duintasuna, direla pozak, minak...* Jaiak ere elementu horietako bat direlakoan nago, elkarrengana gerturatzeak, elkar ezagutzekoak eta pozak elkarbanatzekoak.

Jada guk erreleboa pasatu diegu gazteei, eta gutako asko ere ez gara auzoan bizi, baina festa giroa usaintzen den garaiotan, beti ateratzen zaigu *xanjuandegitar* sena. Orain datozen belaunaldi berriei dagokie pintzelada berriak ematea egindakoari. Besterik gabe, hasi tiraderan gordeak dituzuen zapi eta banderolez auzoa koloreztatzen. Auzoan elkartuko gara J Martinaren *autotune* melodian 15 urteko efemeride hau ospatzen, edo bertso afarian, auzo bazkarian, Garoako *afterrean*? Aurten ere ez dugu aspertzeko aukerarik izango, ez horixe! Goxau festak, aske eta libre!

Ah, eta jarri dezazuela beste hainbeste urtez auzoa biziberritzen!

«Sanjuandegiko festak oso herrikoia dira; etxeko giroa izaten da nagusi»

DENIS AIZPURU ETA ANER ARANGUREN • XJ Auzolaneaneko kideak

Umeen Egunarekin hasiko dira zapatuan Sanjuandegiko festak. Bost eguneko egitaraua prestatu du XJ Auzolaneanek, eta azpeitiarrek gozamenerako aukera ugari izango dutela uste dute batzordeko kideek. Jaiak hasteko irrikaz daude.

Festak ate joka dira dagoeneko, eta XJ Auzolaneanek prest du egitaraua guztia. Azken prestaketa lanetan murgilduta zirela elkartu da Uztarría Denis Aizpuru eta Aner Aranguren batzordekideekin.

Dagoeneko prest duzue aurten go festetako egitaraua. Zer nabarmenduko zenukette?

DENIS AIZPURU: Gauza bereziak izango dira, baina ez nuke jakingo zerbait nabarmen izaten du egitarauak. Izan ere, pasatutako festen balorazioa egiteko bilerak gauzatzen dugu urtero, eta hurrengo urteko jaiak antolatzeko eredu bat izaten dugu; hau da, iaz zer egin zen begiratzen dugu, eta zer alda daitekeen ere bai. Jaiak ondo joan ohi direnez, ordea, egitaraua ez dugu gehiegi aldatzen.

ANER ARANGUREN: Urtero antzeko planteamendua izaten du egitaraua. Izan ere, pasatutako festen balorazioa egiteko bilerak gauzatzen dugu urtero, eta hurrengo urteko jaiak antolatzeko eredu bat izaten dugu; hau da, iaz zer egin zen begiratzen dugu, eta zer alda daitekeen ere bai. Jaiak ondo joan ohi direnez, ordea, egitaraua ez dugu gehiegi aldatzen.

Ume Egunarekin hasiko dira festak. Zer-nolako erantzuna izan du aurtengo edizioak?

D.A.: Ikaragarria izan da erantzuna. Egia esan, urtero izaten du harrera ona, eta aurten ere

hala gertatu da; 350 ume, haur eta gaztetxo izango dira egun horretako jolasetan eta bazkarian.

A.A.: Ez genuen espero horrelako erantzuna izatea. Pentsa, izena emateko paperik gabe gelditu ginen, eta une batzuetan kudeaketa arazoak izan genituen. Baina arazo onak dira horiek!

Aurtengo berrikuntza nagusienetakoa Tronboneitor ekitaldia izango da. Nondik sortu da hura antolatzeko ideia?

D.A.: Tronboneitor emanaldia antolatzeko ideia Juan Antxieta musika eskolaren bidez iritsi zitzaigun, eta oso interesgarria iruditu zitzaigunez, egitarauan sartu dugu.

Herri kirol saioa, berriz, mistoa izango da aurtengoan. Nolako izango da?

D.A.: Lehenbiziko aldiz antolatu dugu herri kirol saio mistoa. Herri kirolak ezagutarazteaz gain, arlo horretan ibiltzen diren emakumei aukera ematea eta herriarren kontzientzia piztea izan dugu helburu. Izan ere, inoiz baino emakume gehiago dabilta gaur egun herri kirolaren. Gainera, herri kirolari horiek herrikoak edota eskualdekoak izan

nik, bultzatzeko aitzakia are handiagoa da.

A.A.: Lau kirolari izango dira, guztira, jaialdian: bi emakume eta bi gizon. Denek ariketa edo proba berberak egin beharko dituzte. Emakumeak gizonak baino gazteagoak dira, eta fisikoki desberdinak direnez, aldaketa txiki batzuk izango dituzte egin beharreko lanetan.

Iaz lehen aldiz antolatu zenuten patata tortilla lehiaketa, eta arrakasta izan zuen. Dena den, aurten ez duzue antolatu.

A.A.: Herriko taldeen eta eragileen eskariak edota egitasmoak ere sartzen ditugu egitarauan. Patata tortilla lehiaketa, adibidez, iaz Gaztelekuak egindako proposamenetik ateratako ekintza izan zen. Aurten ez dute egin proposamenik, eta ez dugu lehiaketa egingo, nahiz eta iazkoak sekulako arrakasta izan zuen.

Sanjuandegiko festek zerbait berezia baldin badute, hori parte hartzea da. Herriarrek gozatzeko aukera ez ezik, jaietan aktiboki parte hartzeko parada izaten dute. Hori al da festen gakoak?



«350 ume, haur eta gaztetxo izango dira Ume Eguneko jolasetan eta bazkarian»

A.A.: Bai, dudarik gabe. Sanjuandegiko festak ahalik eta herriar gehienengana iristea nahi dugu, izan kanpotik jaietz gozatz, izan barrutik ekintzetan parte hartzen. Gainera, Azpeitia herri parte hartzailea da, eta hori baliatzen saiatzen gara festak antolatzeko.

D.A.: Sanjuandegiko festak oso herrikoia dira; etxeko giroa izaten da nagusi. Herriko gainerako jaiekin alderatuz gero, saninazioekin adibidez, oso desberdinak dira. Saninazioetara jende asko etortzen da kanpotik, eta Sanjuandegin, aldiz, bertako jendea izaten da gehien bat. Horrek eragin zuzena du festen izaeran.

Bi urteko etenaldiaren ondoren, iaz itzuli ziren Sanjuandegiko festak. Arrakasta izugarria izan zuten. Egin al du XJ

Auzolaneanek edizio haren baloraziorik?

I.M.: Ikaragarritzko arrakasta izan zuten iazko festek. Izugarria izan zen!

I.A.: Bi urteko etenaldi horren ondoren, bagenekien jendea parandarako gogoarekin zegoela, baina hura Ikaragarria izan zen. Ez genuen horrenbeste pertsona elkartzerik espero.

Aurtengorako zer aurreikuspen dituzue?

I.E.: Ea iazko arrakasta errepikatzen den, eta gauzak modu berean joaten zaizkigun.

D.A.: Herriarrek gogoz etor daitezela auzora, eta denok ondo pasatu dezagula, inolako erasorik gabe.

Iazko festetarako, Mantangorriren spot-a ere berreskuratu zenuten. Aurtengo jaien atarirako, zerbait grabatzeko asmorik ba al du XJ Auzolaneanek?

D.A.: Iazko Mantangorriren etorreraren bideoa jende asko ikusi zuen, eta asko gustatu zitzairen herriarrei. Iritzi eta kritika onak jaso genituen iaz.

I.E.: Horren harira gauza bakarra esan dezakegu: herriarrek adi egon daitezela...



XJ Auzolaneaneko kide batzuk –ezkerretik aurrena da Denis Aizpuru eta ezkerretik bigarrena Aner Aranguren–. UZTARRIA

Bertsoak, beti arrakastatsu



Mantangorrirekin dator festa



Bazkari jendetsua



Xakeak badu tartea



Bi urteko etenaldiaren ondoren, iaz itzuli ziren Sanjuandegiko festak auzora, eta auzotarrek nahiz herritarrek gogotsu ospatu zituzten.

Itzulera gogotsua

Covid-19ak munda, eta ondorioz, Azpeitia ere gelditu zituen bat-batean 2020. urtean. Hilabete luzez iraun zuen pandemiak hainbat ekintza eta festa bertan behera uztea eragin zuen, eta Sanjuandegiko festak ez ziren salbuespena izan.

Hala, bi urteko etenaldiaren ondoren iaz itzuli ziren Sanjuandegiko festak, eta

auzotarrek nahiz herritarrek gogotsu ospatu zituzten horiek. Uztarriak jaietako une asko bildu eta jaso zituen irudietan, eta horietako hainbat orriotara ekarri ditu, oroimena astintzeko eta festa gosea pizteko helburuekin.

Sanjuandegiko festak, ofizialki, Mantangorriren etorrerarekin hasten diren arren, jaietako lehen ekintzak lehenago hasten dira. Aurtun, adibidez, Ume Eguna izango da jaien aurreko lehen hitzordua. Azpeitiarren gozamenarako ha-

maika ekintza izaten dira Sanjuandegin, horietako askotan, gainera, herritarrek izaten dira protagonista: xake txapelketa, areto dantzak, auzo bazkaria, mus lehiaketa... Iazko ekintza berriak, patata tortilla lehiaketak, aldiz, ez du jarraipenik izango aurtun.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak etxeko animalien ongizatearen inguruko legea onartu zuen iazko abuztuan, eta ondorioz, umeentzako animalien ikuskizunik ez da izango.

Patata tortillarik ez aurtun





Mus txapelketa, ohiko hitzordua



Azpeitiarrak dantzan



Umeentzako animaliarik ez



adats
berpaindegia
estetika

ONDO PASATU JAIK!

Salbe auzunea 32 beheia
20730 AZPEITIA
adats azpeitia

Telf. 943 81 39 90

AITZAKI KIROLAK

Jose Antonio Agirre Plaza 4
943-15 07 38 - AZPEITIA

Julio Uzkijo Hiribidea 36
943-53 27 70 - AZKOITIA

ONDO PASATU FESTAK!

ALABIER ITURGINTZA

Urbitearte 1 beheia **943-61 11 79** • intermedia@alabier.com

a
anare
ile-apaindegia

ondo pasatu auzoko festak!

Barrenetxe 7
943-1515 53 AZPEITIA

INTXAUSTI

Salte 33 • A-1 • 118 • 943-61 04 08


Ondo pasatu jaiak!

VIII • Mantangorri

UZTARRIAGUKA
Osteguna, 2023ko maiatzaren 25a

UZTARRIAGUKA
Osteguna, 2023ko maiatzaren 25a

Mantangorri • IX



Gelditzeko iritsi zen Mantangorri

2010eko festetan agertu zen lehenbizikoz Mantangorri. Garai hartako gazte batzuen ideia izatetik erreferente izatera igaro da gaur egun.

Amona mantangorri izango da aurtengo festetako irudia. Kondairak dioenez, amona mantangorri eguraldi iragarlea da, eta eguraldia aldatu ere egin dezake. Hortik dator, hain zuzen, mantangorria

hatzamar puntan jarri eta kantuan honako galdera hau egiteko ohitura: «Amona mantangorri zeruan zer berri?». Esaldi horrekin aurkeztu zuen Sanjuandegiko Festa Batzordeak Mantangorri.

2010. urtea zen, eta Festa Batzordeak orduan ez bazekien ere, Mantangorri gelditzeko iritsi zen

auzora. Izan ere, gaur egun festen ikurrik nabarmena da maskota. Baina nola sortu zitzaizen Mantangorriren ideia? Eta zergatik? Garai hartako Festa Batzordeko kideak izan ziren sustatzaileak: Haritz Garmendia, Aitor Zinkunegi, Koldo Elzendi, Joana Aldalur, Felipe Murillo, Hodei

Otaegi, Aiora Zenitagoia, Jon Kerreja, Jon Murillo eta Eneritz Manzisdor, beste askoren artean.

«Urte haietan puri-purian zegoen Mare Arroxa mugimendua. Hura ikusita, Sanjuandegiko festak ezagutarazteko balioko zuten irudiren bat eta kolore bat behar genituela pentsatu genuen», gogoratu du Aitor Zinkunegi. Horrela, beste hainbat lekutako festak aztertu zituzten, eta proposamen bat eta beste egin ostean, Mantangorriren ideia sortu zitzaizen.

«Ez zen irudia mantangorri izateko arrazoi zehatzik egon, baina pentsatu genuen tantodun irudiak eta zapiak bat egiten zutela auzoak zuen eta duen aniztasunarekin. Izan ere, kolore gorria eta puntu beltzak utzartuta, sei-ilar eta flamenko ukitura hartzen

baitu. Ideia polita iruditu zitzaigun», azaldu du Zinkunegi.

Ideia hura hobetsita, Mantangorri abiadura hartzen hasi zen poliki-poliki. Batzordeko kide batek lantokian egin zuen Mantangorri maskota, beste batek kanta sortu zuen unibertsitateko bidetean, beste batek zapiak egin zituen... «Egia esan, asko antolatuta gabe egin genituen gauzak. Gazteak ginen, gogotsu geunden eta dena ondo atera zen. Oso giro ona eta saltsa genituen gure artean, eta horrek ere lagundu zuen ideia zoro hura egi bihurtzen».

Urte hartan bertan jaitsi zuten Mantangorri Jose Antonio Agirre plazako etxebizitza batetik. «Inprobisatutako antolakuntza zen gurea, eta horren adierazle izan zen Mantangorriren jaitsiera baino ordubete lehenago sokarik ez

genuela ohartu izana... Eskerrak batzordekide bat eskalatzen ibiltzen zen eta bazituen sokak!», azaldu du Zinkunegi.

HERRIAN, BEREZIA

Mantangorri 13 urte beteko ditu aurtengo festetan, nahiz eta gora-behera baitzuk bizi izan dituen urte hauetan. Izan ere, nola abaztu maskota lapurtu zuten urteaz? Dena den, festen ikur gisa egonkortuta dago Mantangorri. Sanjuandegiko festak ezingo lirarteke uertu Mantangorrigabe. Hala dio Zinkunegi: «Orduko batzordekideok garai polit bezala gogoratzen dugu sorrerakoa, eta auzoan utzitako arrastoak hunkitu egiten gaitu. Ederra da gure ekimen bat oraindik mantentzen dela ikustea, baita zer indar hartu duen eta zer leku duen ikustea ere».

COVIRAN
ONDO PASATU JAIK!

Salbe auzoa 22 - Azpeitia

EGUZKI
belandenda
dietetika
kosmetika naturala

Urbitearte 9 behe • 943 15 03 23 • AZPEITIA

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea 34 • Tel.: 943 15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51

ERREKA

URBITEARTE 5
SANJUANDEGI AUZO, AZPEITIA
943-61 23 82

ERROTAUNDI
Okindegia

gozatu auzoko festez!

Euskal Herria Kalea 34 • 943-61 61 79



**Ondo
pasatu
festak!**

Euskal Herria Kalea 33
943-81 23 88

**GOI
ATZ**
ILEAPAINDEGIA

salbe auzueña 36
20730 azpeitia
943-81 04 08

**ONDO
PASATU
FESTAK!**



Urbite 4
AZPEITIA
943-81 03 08



Ondo pasatu festak!

Euskalherria 31 · Azpeitia · 943-81 39 47

Jim Clark
TABERNA

ONDO PASATU FESTAK!

Euskal Herria Kalea 33
943-08 00 89



SAIO MISTOA, LEHENDABIZIKOZ

Igandean, 18:30ean hasiko da herri kirol erakustaldia. Udane Ostolaza eta Olaia Esnaola harrijasotzaileek parte hartuko dute saioan.

Badira Sanjuandegiko festetako egitarauan leku finkoa duten ekintza edo ekitaldi batzuk. Horien artean dira, besteak beste,

auzo bazkaria, Mantangorriren jaitziera edota Laket taldearen kontzertua. Urteroko hitzordu horien artean da jaietako azken egunean egiten den herri kirol erakustaldia ere. Aurtengoan, baina, berrikuntza nagusi bate-

kin iritsiko da saioa. Izan ere, XJ Auzolaneanek saio mistoa antolatatu du lehendabiziko aldiz: «Emakume ugari hasi dira horrelako herri kirol jaialdietan parte hartzen, eta Sanjuandegiko batzordeak horiek ezagutarazi nahi



**JOSTALDI
KIROLAK**
**ONDO
PASATU
JAIK!**
Euskalerría, 33 • 943-15 16 39
www.jostaldikirolak.com
 

Kantoi
TABERNA

Ondo pasatu festak!

Salbe Auzoa 15
943-04 75 46


LAGUNAK

Urbitate 7 behea • AZPEITIA
943-81 37 87
www.lagunaksl.com • elagunak@gmail.com

LASA
GOZOTEGIA

Ondo pasatu festak!

Salbe Auzoa 14 • AZPEITIA • 943-81 25 39

Loiola
Ile-apaindegia

Ondo pasatu festak!

943-90 24 58

izan ditu», azaldu dute XJ Auzo-
laneaneko kideek.

Igandean, 18:30ean hasiko da
herri kirol erakustaldia Jose An-
tonio Agirre plazaren ondoan, eta
bertan parte hartuko dute Xabier
Aranburu Guztia eta Jon Unanue
Goenatxo III.a zein Udane Ostol-
laza eta Olaia Esnaola harrijaso-
tzailleek. Bi emakumeak lehen al-
diz ariko dira Mantangorriren
buelako jaietako erakustaldian,
nahiz eta herri kirolean eskar-
mentua baduten dagoeneko.

Azken urteetan gorakada na-
barmena izan du emakumeen
herri kiroleko parte hartzeak.
Hala jakinarazi du Esnaola harri-
jasotzaile azpeitiarrak: «Lehena-
go ere parte hartu izan dut beste
saio misto batzuetan; izan ere, az-

ken urteetan emakume gehiago
hasi dira herri kirolean, eta ho-
rrek ekarri du saio mistoak egite-
ko aukera gehiago izatea. Nik po-
zik hartzen ditut horrelako ikus-
kizunetarako proposamenak,
urte asko igaro ditut-eta neska
bakarra izaten gizonen artean.
Egia esan, gusturago jarduten dut
neska gehiago daudenean».

Goenatxok egin zion saioan
parte hartzeko proposamena Es-
naolari, eta hark azaldu duenez,
«bat-batean» erantzun zuen
baiezkoa. Dagoeneko Ostolaza
eta biak entrenamenduetan mur-
gilduta dabilta buru-belarri, eta
ekainaren 4ko erakustaldian saio
ona eskaintzeko moduan ikusten
direla azaldu du Esnaolak: «Aste-
an bitan ari naiz entrenatzen, eta

ostegunetan Oriola joaten naiz
Udanerengana, elkarrekin entre-
natzeko. Ondo prestatuta nagoe-
la uste dut, ni ondo ikusten naiz
behintzat, eta gogotsu nago egu-
na iristeko».

HERRIAN, BEREZIA

Esnaola, gainera, jaioterrian ariko
da igandean, eta berarentzat be-
rezia izango dela aitortu du:
«Sanjuandegiko festetan ariko
naizen lehen aldia izango da, eta
inpresioa egingo dit, ikusten
izango diren pertsonak ezagutu
gingo ditudalako. Baina gustura
nago herrian ariko naizelako, eta
azpeitiarrei hara joateko deia egin
nahi diet». Ostolaza ere Sanjuan-
degiko festak ezagutzeko gogo-
dago, «ospe handia dute eta!».



Urbitate 3 behea
943-81 00 23
AZPEITIA



**ondo
pasatu
auzoko
festak!**

makibar Euskal Herria Kalea 31
943 08 06 00

*Ongi
Etorri*
J A T E T X E A

Ondo pasatu festak!
Salbe auzunea 21 · 943-15 08 69



Osinazpi
Ondo pasatu festak!

Jose Antonio Agirre plaza 6-7 · AZPEITIA
943-02 68 60
www.osinazpi.eus · info@osinazpi.eus



Rocha's Chopper
Ondo pasatu jaiak!

Urbitate auzoa 8 behea · AZPEITIA

TRONBOI JOTZAILEAK AUZOAN BARRENA

Tronboia ezagutaratzeko, Tronboneitor ikuskizuna antolatu dute XJ Auzolanean eta Juan Antxieta musika eskolak elkarlanean.

Tronboi doinuek hartuko dituzte Sanjuandegi auzoko kaleak eta txokoak jaietako azken egunean. Izan ere, XJ Auzolanean eta Juan Antxieta musika eskolak Tronboneitor ikuskizuna antolatu dute elkarlanean.

Ikuskizuna, izatez, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek sortu zuen 2010ean; Hondarribian egin zuten lehen aldi haren arrakasta ikusirik, egitasmoa urtero egitera animatuta dira antolatzaileak. Hala esan du Mari Jose Bikendi Juan Antxieta musika eskolako zuzendariak: «Tronboi-jotzaileak elkar ezagutzea da hel-

burua, baina baita horiek ondo pasatzea eta tronboia ezagutaraztea ere».

Musika klasikoan eta jazzean oso musika tresna ezaguna eta erabilia den arren, egunerokotasunean ezezaguna da, oro har, tronboia. Horregatik, eta Biken-dik nabarmendu duenez, umeen artean instrumentua sustatu ahal izateko garrantzitsua da festetako azken egunerako prestatu duten hitzordua. «Gazteek musika eskolan instrumentu bat aukeratu behar izaten dutenean, ez da oso desiratu izaten tronboia, baina, musikan, orokorrean, funtsezko musika tresna da. Horrelako instrumentuak sustatzeko, beraz, garrantzitsua da Tronboneitor gi-

sako ikuskizunak antolatzea».

Azpeitiko tronboi ikasleekin batera egitasmoan parte hartuko dute, besteak beste, Dulantziko, Debako, Errenteriako, Donostiako, Oñatiko, Hondarribiko, Mutrikuko, Bergarako edota Loatzoko eskolako ikasleek. Guztira, ehun ume eta gaztetxo baino gehiago elkartuko dira. «Horrelako kasuetan, entseguak ez dira errazak izaten; musika eskola bakoitzak bere kasa egin ditu prestaketak. Azpeitiko ikasleek, adibidez, ostegunetan egin dituzte entseguak, eta prest daude emanaldi-rako», azaldu du musika eskolako zuzendariak.

Tronboneitor ikuskizuna kalejira batekin hasiko dute; auzoko



kaleetan barrena ibiliko dira ikasle guztiak. Ondoren, berriz, kontzertua eskainiko dute. Emanaldia lau zatitan edo arlotan banatuta egingo dute, ikasleen adinaren arabera. Horrenbestez, musikari txikiak, gazteak eta helduak izango dira, eta talde bakoitzak hiru abesti joko ditu. Gazteek eta helduek, gainera, *Arratsalde honetan* interpretatuko dute, eta amaieran ikasle guztiak batuko dira *Firework* jotzeko. Askotariko abestiz osatu dute erreperterioa, eta beraz, garai eta estilo askotariko doinu ezagunak entzuteko aukera izango dute herritarrek, besteak beste, talde hauenak: Maroon five, Huntza,

A-ha, Ed Sheeran, Imagine dragons, Ken 7 edota Skarlariak.

URTEURRENEAN

Ez da Tronboneitor ikuskizuna Azpeitian egingo duten lehen aldiz izango; izan ere, aurrez ere egin izan dute. Dena den, bada aurtengo edizioa Azpeitian egiteko arrazoi nagusi bat: Juan Antxieta musika eskolaren 40. urteurrena.

«Data berezi horren harira, aurtengo ekitaldia Azpeitian egitea eskatu genuen, eta onartu egin zuten proposamena. Sanjuandegiko festak izanda, ez zuen zentzurik kalean horrelako ekitaldi bat antolatzeak. Batzordearekin

hitz egin genuen, eta jaietan txerretatu genuen egitasmoa», esan du Bikendik.

40. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dabil Juan Antxieta musika eskola urte hasieratik, eta hala jarraituko du urte amaierara arte. Urtean zehar hainbat ekintza egin dituzte, hala nola Hazparneko musikariekin batera emanaldia, Kontzertua familiar emanaldia, banda gazteen topaketa, Dantzari Txiki Eguna edota Argiztatutako Gauak egitasmoa. «Atzeratu ditugulako eta, baditugu oraindik azpeitiarreri eskaintzeko emanaldiak eta sorpresak», adierazi du musika eskolako zuzendariak.



SOMOZA ARRANDEGIA

Ondo pasatu jaiak!

Sanjuandegi auzunea, Salbe 21
943-81 39 91 • AZPEITIA

Mendata

ESTUDIO GRAFIKOA



Urbitarate 8 - behea | T. 943 38 84 81

WEB DISEINUAU

WEB MANTENUA

KARTELAK

FLYERRAK

LOGOAK

SARE SOZIALAK

MENUAK

GONBIDAPENAK

INPRIMAKETAK

ESKANEOK

...

mendataestudio@gmail.com

izaro

Kafe Bar

Ondo pasatu jaiak!

Salbe auzoa 34 - Azpeitia

K
URKIZU

LANEKO ERROPAK

SALBE 24

20730 AZPEITIA



943 02 58 61

info@urkizu.net

Ondo pasa XANJUANDEIKO festak!!

ZUTUOIN
PODOLOGOA AZPEITIA

Julen Albizu Aztiria

Podologoia 313 Kol. Zkia.

943-81 00 72 • 608 83 86 37



DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukl.eus o 943-81 38 41

Agenda

Maiatzak 27, larunbata

Ume eguna

12:00. Umeen Egunean izena eman duten haurrak begirale-ekin elkartuko dira, eta jolasak egingo dituzte.

14:00. Umeen auzo bazkaria.

16:00. Julen magoaren emanaldia.

Maiatzak 31, asteazkena

21:00. Bertso afaria izango da Sanjuandegiko Baigeran. Julio Soto eta Iker Zubeldia ariko dira kantuan.

Ekainak 1, osteguna

19:00. Kantu jira eta pintxo poteoa.

21:00. Mus Txapelketako izen-ematea.

22:00. Mus Txapelketa, Ongi Etorri erretegia.

22:00. Iluntze musikatuaren barruan bi kontzertu izango dira Jim Clark eta Garoa tabernen atarian, Edu Zardoya-ekin eta Sheldons taldearekin.

Ekainak 2, ostirala

Gazte Eguna

15:00. Kafea eta auzolana.

19:00. Mantangorriren ongietorria Jose Antonio Agirre plazan.

19:05. Kalejira buruhandekin, erraldoiekin eta trikitalariek.

20:00. Batukada.

21:00. Gazte afaria.

23:00. Jose Mari Orbegozoren dantza eskolako kideen areto dantzen emanaldia.

23:00. Kontzertuak karpan: Manitu, Neallta Fola eta Larket.



Umeak, lehen festa eguneko protagonistak

Ekitaldiz betetako egitarau oparoa antolatu du XJ Auzolaneanek aurtengo festetarako. Bost jai egun izango dira guztira, eta lehen-dabizikoan, larunbat honetan, umeak izango dira protagonista nagusiak. Umeen Egunaren baitan, jolasak, bazkaria eta magia ikus-kizuna antolatu ditu XJ Auzolaneanek. Festen hasiera ofiziala, berriz, ekainaren 2an izango da, Gazte Egunarekin, edo hobeto esanda, Mantangorriren etorrerarekin. ERREDAKZIOA

Gainera, herriko DJak txosnan: Matx, Meriton, P4ul, Ene-sound, Jos_U eta Kanpax.

Ekainak 3, larunbata

Auzo Eguna

09:45. Xake txapelketako izen-ematea.

10:00. Xake Txapelketa.

11:00. Judo erakustaldia.

13:00. Udal Musika Bandaren kontzertua.

13:30. Triki-pintxo-poteoa.

15:00. Auzo bazkaria, Jose Antonio Agirre plazan.

17:00. IX. Trikiti Txapelketa.

19:00. Skapaie elektrotxaranga, erraldoiak eta buruhandiak.

20:00. Parrillada, Kontseilu

Sozialistaren eskutik.

22:00. Kontzertuak: Denso Productions eta J Martina.

Ondoren, Tinz DJaren emanaldia karpan.

Ekainak 4, igandea

06:00. Txokolatada eta aerobik saioa egingo dituzte.

07:00. Zezenak izango dira Barrenetxe auzunean.

09:00. Salda.

10:30. Tronboneitor.

12:00. Dantzari txikien emanaldia.

18:30. Herri kirol erakustaldia.

19:45. Boletoen zozketa.

20:00. Mantangorriren agur ekitaldia egingo dute Jose Antonio Agirre plazan.

LAGUNTZAILEAK:

Lasa gozotegia, Endika Arregi fisioterapia, Iturria ile apaindegia, Intxausti harategia, Karmina arraindegia, Adats ile apaindegia, Zutoin podologia, Coviran denda, Laur janari-denda, Makibar fruta eta abar, Haizea arropa denda, Mantangorri kebaba, Iris mertzeria eta drogeria, Eguzki belardenda, Goiatz ile apaindegia, Txintxu gozotegia, Errotaundi okindegia, Aitzaki kirolak, Alabier iturgintza, Gu ile apaindegia, Asun ile apaindegia, Lagunak elektrizitatea, Artetxe

Bastida farmazia, Urkizu lane-ko arropa, Urbistondo margoak, Inka kafetegia, Lopene harategia, Osinazpi jatetxea, Ongi Etorri erretegia, Niza taberna, Kantoi taberna, Rocha's Choper taberna, Jim Clark taberna, Garoa taberna, Erreka taberna, Baigera II jatetxea, Izaro taberna, Orkatz kultur elkarte, Urola Erdiko Kontseilu Sozialista, Haujijijai Batzordea, Urrestillako Festa Batzordea, Vivero elkarte, Loiolabide Zahar elkarte, Iturri elkarte eta Azpeitiko Udala.

URBISTONDO MARGOAK

ONDO PASATU JAIK!

Salbe auzunea 35 behe • 20730 AZPEITIA • 943-81 57 81

info@urbistondomargoak.com

Autokontrolera bideratutako proba simpleak: kolesterola (HDL, LDL), triglizeridoak, az. urikoa, glukosa, kreatinina...

Azal-azterketa dermo-aholkurako Tentsio arteriala hartzea Enkarguk zerbitzua VIH test azkarra SPDak

FITOTERAPIA DERMOFARMAZIA HOMEOPATIA

ARTETXE-BASTIDA FARMAZIA

Urditarte 3 - Azpeitia 943-811948-688899888 @artetxebastidafarmazia

Ekainak 20: 2023/2024 64/2023/2024